

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2E15 Hitz eta pitz

Maila: A2

Helburuak: Lagunartean eta aurrez aurre pertsonen eta jantzien deskribapenak egitea esamolde bakun eta errazak erabiliz. Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea.

Funtzioak: Pertsonak eta gauzak deskribatu: zerbait nolakoa den, non dagoen. Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea.

Adierazpide linguistikoak: (izen arrunt + adjektibo bakunak), galderak.

Azken ekintza: Elkarreraginean (galdera-erantzunak) baloratu ikaskidearen jantzia egokia izan zen joan zen ekitaldi edota tokira eramateko.

1- ENTZUN AURRETIK

1.1. Telefonoz hizketan



Telefono bestaldetik, 4 hizketaldiek zer eskaini, utzi edo eman nahi duten jakin behar dute.

Aurrena bakarka egin dezatela, eta gero binaka konprobatu, elkarri adieraziz zerk eman dien loturak egiteko arrastoa.


Erantzunak:

- Kopiatu al duzu?... Bai, a bilduaren aurretik nire izena eta abizena segidan. Tarterik gabe. (1. Posta elektronikoko helbideaz)
- Bale. utziko dizut biharko. Baina gasolina bota behar diozu. (3. Autoaz.)
- Ea gogoratzen naizen! Sartzeko, atea krisketa jarri gabe utziko dizut. (2. Etxeko giltzez)
- Baina ezkerreko poltsikoa zulatuta dauka. Josi. (4. Galtzez)

Momentu egokia da deklinabideko instrumentala (Zertaz kasua) azaldu edota birpasatzeko. [Hemen](#) duzu gai hori jorratzen duen jarduera posible bat.

2- ENTZUN BITARTEAN


2.1. Lehen grabaketa-zatia entzun bitartean ulermen-galderei erantzun



Erantzunak: Zer eskaintzen dio Sarak Amaiari?: Zenbait soineko-mota.
Nondik ari da deika Amaia? / Igogailutik.

Galderei bakarka erantzungo diete ikasleek eta ondoren, ikaskide batekin konparatuko dituzte erantzunak.

2.2. Ideiak egia ala gezurra diren markatu



Audio osoa entzun bitartean, bakarka egitekoa; gero binaka erantzunak erkatu, eta elkarri esanarazi zerk jarri dituen erantzunaren arrastoa. Erantzunak binaka konprobatu ondoren, nahi bada, hirugarren entzunaldi bat egin behin-betiko konprobaketa egiteko.

Erantzunak

Sarak bi soineko beltz erosi nahi ditu. **GEZURRA**

Sara eta Amaia berdintsuak dira itxura aldetik. **EGIA**

Amaiak badu bere soineko bat festarako, baina desegokia. **GEZURRA**

Amaia Sara gabe doa festara. **GEZURRA**

Giro eta mutil ederrak izaten dira horrelako festetan. **EGIA**




Telefono-deia eten egin da igogailugatik. **EGIA**

3. ENTZUN ONDOREN

3.1. Hizkuntzan arreta

Laukian deskribapenak egiteko (pertsonak, gauzak, tokiak, garaiak...) elementu-bikotea ematen zaie ikasleei: izena + adjektiboz osatutako lau adibide edo izen-sintagma; audioan daudenak eta adibideak oso-oso antzekoak dira. Ikus lauki urdina.

3.2. Zer deskribatzen da: pertsonak, gauzak, tokiak, garaiak?

   Izen-sintagma hauetako bakoitza taulan sartu behar dute:

soineko beltza, jende jatorra, mutil ederrak, igogailu madarikatua, une garrantzitsua.

Nahi izatera, jarduera egin aurretik audioa berriz entzun edo transkripzioa irakur dezakete. Entzun eta irakurtzea, biak egitea ere, kalterik ez!

Erantzunak.



Pertsonak: jende jatorra / mutil ederrak /

Gauzak: jantziak...: soineko beltza



Tokiak: igogailu madarikatua

Uneak/Garaiak: une garrantzitsua

3.3. Pertsonak eta jantziak deskribatzen: adjektiboak.

  Jarduera osatze aldera, esaten zaie binaka idazteko zerrenda bat jantziak deskribatzeko ezagutzen dituzten izenondoekin. (3.1, 3.2. eta 3.3. ataletan egindakoa balia dezakete gero 3.4.1 atalean).

3.4.1. Ikaskidearen jantzia baloratzen



  Binaka eta txandaka ahoz egitekoa.

Ikasleak ekar dezala bere argazki bat, ekitaldi edo toki berezi batera eramandako jantziren bat azaltzen duena. Esan dezala nora joan zen jantzi horrekin. Ikaskideari galdetuko dio: “Jantzi egokia da horretarako?”, joan zen ekitaldirako, alegia.

Ikaskideak galdera horren aurrean ikaskidearen jantzia baloratu beharko du batetik, eta bestetik, ea aproposa zen joandako ekitaldi edo tokirako. Hau egiteko baliagarri zaizkio 3.1., 3.2. eta 3.3. ataletan landutakoa.

Bi ikaskideen artean izan daitekeen elkarrizketa-adibide bat eskaintzen zaie ikasleei.

3.4.2. Zein ikaslek aukeratu du jantzirik egokiena?

  Ikasle guztien jantziak ebaluatu eta gero, galdera honi erantzun diezaiotela: Nork aukeratu du jantzirik egokiena. Eta osa dezatela hiru atal dituen taula: ikaslea, ekitaldia eta jantziaren deskribapena.

[Oharra: Deskribapen-testu baten inguruko jarduera bat duzu helbide honetan.](#)

TRANSKRIPZIOA

AMAIA.— *(telefonoan)* Ez daukat ezer txukuna janzteko. (...) Ez. (...) Zuk utziko didazu soineko beltza? (...) Bai. (...) Antzekoak gara. (...) Entzun, Sara, igogailuaren ondoan nago, eta, barruan sartzen naizenean, eten egingo da deia. (...) Beste bi? (...) Kalerako ala festarako?

AMAIA.— Sara, Sara, ez dizut entzuten, barkatu, igogailua iritsi berria da eta... (...) Festarako? Ba primeran, oso ondo etorriko zaizkit, batere gabe nagoelako. Bien artean bat aukeratuko dut zuekin joateko. Ederki ibiliko gara, ikusiko duzu. Niri festa horiek izugarri gustatzen zaizkit: jende jatorra joaten da, giroa ederra izaten da eta batzuetan, mutil ederren bat ikusteko aukera dago. Ez, ez, ez, ez, pisukideak ez, egun osoa ematen dut haiekin eta beste giro batean ibiltzea ondo etorriko zait. (...) Sara? Ai, Sara! Sara? Hor zaude? Ai, igogailu madarikatua! Sara! Une garrantzitsuenean eten behar!